




N.º de Registro BI 131-65 — Depósito Legal: BI - 1553 - 1967

Gráficas ELLACURIA - Buenos Aires, 13 - Bilbao-1

ESOPO'ren ALEGIAK

I



Etxebarria'tar Juan Anjel'ek
gerkeratik euskeratuta

ESOPO'REN ALEGIAK

I

**Etxebarria'tar Juan Anjel'ek
gerkeratik euskeratuta**

S. Anton'go Katekesia

Euskal - argitalpenak

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vasuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar - Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati Izkuntzaren Joskera (Orixe)
19. Kristau Aziera (Batikano Agiriak)
20. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)

Sopelana'ko

Unanue'tar Miren Josune'ri:

Corputzez sendo, biotzez alai.
Sortzez euskaldun, gogoz orokor.
Orain-geroak dagoz zure zai:
zaitetz odol ta gogoz emonkor.

Gitxi be gitxi dakigu Esopo'ri buruz; Herodoto'k bere edestiaren bigarren idaztian dirauskuna: Samos'ko Ladmon'en jopua zala. Orretara ezkerro, Jesukristo'ren aurreko VI-garren gizaldiaren erdi-aldean bizi izan zan Esopo. Urrengo gizaldian oso ezagun ta zabaldua dabil Grezi'n. Antza danez, Esopo'ren alegien zenbait idaztune umeen eziketarako erabilten ziran. Egiaz, orretarako egoki baiño egokiagoak ziran: alegiak adimenari ta irudimenari pozgarri ta asegarrik asko emoten dautsie-ta. Esopo'k ez hide zituan dan-danak idatzi. Geroago batuak izan ziran. Bitartean, ainbat gizon ospetsuai lez, gai onetzaz eta era onetan sortutako ipuin asko Esopo'ri itsasten yakozan. Baita ere esan bear da, Esopo'k itz-lauz emon euskuzala bereak. Platon'ek esanda dakigu Sokrates, giltzapean egoala, Esopo'ren alegiak bertsotan jartzeu alegindu zala. «Orretxegaitik alegiak eskumenean euki ta erabil'ten nebazan; asikeran Esopo'renak irakurri ta bertsotan jartzeari ekin neutson.» (Phedon. 61, B.)

διὰ ταῦτα δὴ οὗς προχείρους εἶχον μύθους καὶ ἠπιστάμην, τοὺς Αἰσώπου, τοὺτους ἐποίησα, οἷς πρώτους ἐνέτευχον.

Euskeraz Bizenta Mogel'ek jantzi euskuzan Esopo'ren batzuk. Beste itzulpen batzutan edan ebaneta, jatorrizko lanetik urrintxo ibiltan da. Mamiña, barriz, oso-osoan Samos'ko idazleagandik artuta. Zertzelada nagusienak bardin-bardin izaten dira.

ALEGIAK GREZI'n: Oar bat lenengo. Ainbeste abere zertarako? Ara, alegiaren guna ez dago abereizketan, ezta euren izakera ta keiñuetan be; benetako mamiña alegitik ataraten dan ikaskizuna da. Ortara ezkerro, obe abereak izketan jarri. Gureztat mingarri ez diran jarduerak eta izakerak artu lekiez eta. Gaiñera, ikaskai-moduan, legor emon bearrean, bizi-bizi ta alai emoten yaku irakaspena. Abereen lenengo alegi-eredua, Grezi'n, Herodoto'gan dogu «Egunak eta lanak» (202-garren ta urrengo bertsoetan). Garai orretan, baiña, alegiak etziran idaz-mueta berezia. Bestelako idazkietan tartetu oi ziran idaztuneak baiño, aolku bizi bat edo irakaspen zorrotz bat emoteko aukeratuak. Arrezkerro, berarizko elerti-mueta biurtu zan. Orretan Esopo eredu ta maixu.

Bere 357 alegietan geien aipatzen diran abereak: leoia 38 bidar; lukia 33; txakurra 27; otsoa 24; as-toa 22; Adimendunen artean erabillienak: Zeus 13; Hermes 8; artzaiña 9; bidaztia 8.

ESOPO'ren ALEGIAK: Esopo'k labur idazten dau. Apaingarri larregi barik. Zeatz eta mamitsu. Alai ta asmotsu, zalapartarik atara gabe. Ez miliki ez legor. Ba-dirudi bere alegiak patxadaz asmatu, ausnartu ta mamitzen dituala. Bere alegiak gizonai zuzenduta egon arren, ia geienetan aberetzaz baliatu oi da. Bere azalpen, irakaspen ta ondorenak ataratzeko. Nundik artu ete eban aria? Abereen arteko gauza ta gertaerak ikusi ondoren gizonentzako be balio ebela ikusita, ala, gizonen artean ezbear eta jazoerak oartuta, oldoztu ta oldoztu, ene!, abereen artean jazoten dan au ondo datorkit nire anaiari irakaskizun bat emoteko ta, zast! or doa alegi bat. Zeri begiratu eutsen lenengo? Giza-barneari adi-adi egon ta gero, ene!, abereen artean be bardin-bardin izaten da, ala, abereen jardueraz oartuta, ara gizonen artean be beste orrenbeste edo onen antzera gertatu oi da, esanda? Bigarren era onetara asmatuko eban ipuin-aria, aurki. Gizona beti gizon. Ta Esopo, olan uste izateko da, bere izatearen zordun. Gero abereengana pasatzea erreza ta bat ere arrisku gabeko gauza. Batetik inguruko gizonak iraindu ez, izenak ixilduz, bestetik, denporaren buruan be, alegia jakingarri. Giro ta une bateko zertzeladak baztertuta, gauzaren orokortasunak eta kidetasunak balio dausku edozein aro ta girotan sartuta gagozala.

Ondorenak gizona, buru ta gogo, eskolatu ta lantzeko zuzendu oi ditu. Noizean bein, gizarteko edo erriketa-arazoen egitaraua emoteko ere bai. Goi-koak arropuztu ta neurritik atara ezdaitezana ta menpekoak argituaz, atzipetu edo asaldatu ez daitezana.

GURE ARGITALPENA. Orra or Esopo'ren amai-ka alegi, gerkerazko itz eta guzti. Zertarako alperrikako gastu au? Ba, gure apaizgai gazteak baserritik urten ta Salamanka'ra joan barik (Salamanka'ra joateko amordearen izkuntzan itz egin bear da-ta) kulturadun erriak ezagutu dagiezan. Ori lenengo. Bigarren, gure Errauzkiñe gaixoak zibilizaziñoaren babespean, beintzat, ats-alditxo bat izan dagian, «stulta latiniparla-koak» emondako estu-aldien artean.

Ez da naikoa «euskerazko plazara urtetea», ondo apainduta bear dau, guztien begi-biotzak bereganatzeko. Ia errege-gai zintzoren batek, beragaz maite-minduta, bere jauregira eroan ta eztegu andiak egiten dauzan. Olan ba'litz, luzaro bizi daitela ta «videat filios suos usque in tertiam et quartam generationem».

Erantzuna (ad libitum): AMEN.

Euskeratzailleak

Oraintxe eskuetaratu yaku Olabide zanaren itzulpena: Esopo'ren berrogei alegi. Euskera eder-aberatsa dau, otz samarra baiña.

INTXAURRONDOA

Bide-ertzean landatutako intxaurren batek ale asko ekarten zituana. Bidez joiastanak arrika egiten eutsen, intxaurren-gale. Errukarriak esan eban: «Ene gizajoa, nire igaliakaz poztuten dodazanengandik artzen dot esker gaiztoena!»

Ipuin au esker-txarrekoen zentzagarri da.

OTSOA TA ARTZAINAK

Otso batek, artzainak euren txabolan ardi bat ja ten ikusirik, bertaratu ta ba-diñotse «Zelako zala parta, nik egingo ba'neu!»

ASTOA LEOI-NARRUAGAZ

Leoi-narruaz jantzitako asto bat danak leoitzen euketa bai gizonak bai artaldeak beragandik igeska ebiltzen. Onetan aizeak gogortu jo ta narrua erantzi eutsen. Orduan guztiak, arinuketan, taket eta makilka jorratu eban.

Ipuinak auxe darakus: ezjakin batzuk, kanpokoai zeozer dirala iruditzen yakenak, euren barriketak agirian jartzen ditu.

BELEA

Belea gaixorik egoan ta esan eutsen bere amari: «Ama, erregutu egizuz jainkoak». Amak, barriz onelan erantzun eutsen: Jainkoen artean nor errukituko da zugaz; nori ez dautsozu zuk aragirik ostu?»

Ipuinak auxe erakusten dau: Bizitza-aldian arerio asko dabezanak, bearrizan-orduan ez dabe adizkiderik aurkituko».

PINUA

Egurin batzuk pinu bat ebagiten ziarduen ederto ebagi be, pinutik beretik ataratako ziekaz Berak, negarrez, onelan esan eutsen deadarka: «Egia, gizon-eskuen bidez jotzen nauan aizkora gorrotagarri ba'yat, are geiago nire zurez egindako ziriak».

Oinazea mingarriago izaten da etxekeengandik datorrenean, ezezagunengandik datorrenean baiño

ZALDIA TA MORROIA

Morroi batek zaldiaren garagarra ostu ta saldu egiten eban; zaldia, barriz, ondo garbitu ta igortzi. Zaldiak esan eutsen: «Egiaz mardo ikusi gura ba nozu, ez egizu saldu jateko dodan garagarra».

TXITXARRA TA INURRIAK

Negutean, eguzkiak diz-diz egiala, inurriak euriak bustitako janaria legortzen eragoien. Txitxarrak, goseak egoan-da, jatekoa eskatu eutsen. Inurriak erantzun: «Udan zergaitik ez zenduan jatekoa batzen?» Ta txitxarrak: «Ez nintzan alperkerian egoten, adizkideok; bai, ordea, gozokiro abestu». Ta inurriak barrezka esan eutsen: «Uda-aldian kanta, bai?, ta neguan dantza».

Ona ipuinaren irakaskizuna: edozein arazotan, ez da ezertxo ere gitxietsi bear, gero negar ta arriskutan ez egoteko.

INURRIA TA USOA

Inurri bat egarritu ta iturrira joan zan. Urak eroanda, itotzeko zorian egoan. Usoak, au ikusita, zugatz-abar bat artu ta iturri-ondora bota eban, inurriak bertan jarri ta bizirik urten egian.

Onen ondoren eiztari bat, kañaberak ipiñi ta usoa arrapatzeko gerturik egoan. Au ikusita, inurriak eiztariari oiñetan usiki egin eutson. Min arturik, eiztariak kañaberak bota ta beingoan usoari iges egi-ten itxi eutson.

Ipiñiak auxe irakasten dausku: ongilleai esker-ona zor yakela.

BASERRITARRA TA BERE SEMEAK

Lurlangille batek, bizitza itxiteko agiñean egoala, bere semeak lugintzaren jakitun ipiñi gura ebazan. Deitu ebazan ta esan eutsen: «Ene semeok, laster nireak egin dau. Nire ondasunak mastegian ezku-tauta datzaz. Antxe idoroko dozuez diranak».

Eurak bertan ondasuntegiren bat egoalakooan, eriotzaren ondoan, mastegiko soloan atxurketan asi ziran. Ta ondasuntegirik aurkitu ez. Baiña maste-giak, ederto landuta, mats ugariagoak emon eut-sezan.

Ara, ipiñiñaren esangura: bearra ondasuna da gi-zonentzako.

IDIAK ETA BURDI-ARDATZA

Idi-buztarri batek burdi bat eroan. Ardatza ka-rranka, ta atzerantza biurturik onelan esan eutsoen idiak: «Zu, lagun, guk zama guztia eroan ta zu intzirika?»

Onetara, gizon batzuk nekatuta dagozalakoaren itxurak egiten dakie, besteak neke-lorretan dagozala

ARTZAINA TA OTSOKOA

Artzain batek otso-kumea aurkitu ta azi egin eban. Otsoko egin zanean, alboko artaldeetan lapu-rretan egiten irakatsi eutson. Otsoko ikasiak esan eutson: Ara, zuk irakatsi daustazu lapurretan, bai ta kontuz zure ardiak ostu ez dagidazan.

Κάρια τις ἐν ὄφῳ πεφυτευμένη καρπὸν ἔφερε πολὺν. Οἱ δὲ παρ-
οδεύοντες λίθοις αὐτὴν ἐβαλλον διὰ τὰ κάρυα. Ἡ δὲ οἰκτρὸν ἔφη.
᾿Ω ἀθλία ἐγὼ, ὅτι οὐς τῷ καρπῷ μου εὐ-φραίνω, ὑπὸ τούτων δεινὰς
λαμβάνω χάριτας.

Ἐπιγραμματικὸς μῦθος τοῦ ἀ-χαριστοῦ ἐλέγχει.

II

Λύκος βλέψας ποιμένας ἐσθίοντας ἐν σκηνῇ πρόβατον, ἐγγὺς προς-
έρχεται καὶ λέγει «ἡλίκιος ἄν ἦν θόρυβος, εἰ ἐγὼ τοῦτο ἐποίουν».

III

Ἄνος ὄραν λέοντος ἐν-δυσάμενος, λέων ἐνομιζέτο πᾶσι· καὶ
φυγῆ μὲν ἦν ἀνθρώπων, φυγῆ δὲ ποιμνίων. Ὡς δὲ ἀνεμος βιαυότερος
πνεύσας ἤρπασεν αὐτῷ τὴν ὄραν. τότε πάντες ἐπι-δραμόντες
ξύλοις καὶ ῥοπαλοῖς αὐτὸν ἔπειον.

Ἐπιγραμματικὸς μῦθος δηλοῖ ὅτι ἐνίου τῶν ἀπαιδευτῶν τοῖς ἐξω δοκοῦντές τινες
εἶναι, ὑπὸ τῆς ἰδίας γλωσσαλγίας ἐλέγχονται.

IV

Κόραξ ἦν νοσερός, καὶ ἔλεγε τῇ μητρὶ· «Μήτηρ, ἰκέτευε εἰς
τοὺς θεοὺς, καὶ μὴ δακρύει». Ἡ δ' ὑπο-λαβοῦσα ἔλεγε. «Τίς σε,
ὦ τέκνον, τῶν θεῶν ἐλεήσει; τίνας γάρ χρέας σὺ οὐκ ἔκλεπτες;».

Ἐπιγραμματικὸς μῦθος δηλοῖ, ὅτι οἱ πολλοὺς ἐχθροὺς ἐν βίῳ ἔχοντες, οὐδ' ἐνα
φίλον ἐν ἀνάγκῃ εὐρήσουσιν.

V

Πρίσται ποτὲ κατ' ἐσχιζον πεύκην σφήνας ἐξ αὐτῆς πράττοντες
καὶ οἷς ῥαδίως κατ' ἐσχιζον σανίδας. Ἡ δὲ ἐδάκρυε ὀλολόζουσα
οὕτως· «οὐ τοσοῦτον νῦν μέφομαι τὴν ἀξίνην τὴν κόπτουσάν με
ταῖς χερσὶ τῶν ἀνθρώπων, ὡς τοὺς σφήνας ἐξ ἐμοῦ γιγνομένους».

Δεινότερα ἐστὶ λύπη, ὅταν τις ὑπὸ τῶν συγγενῶν πάσχη, ἢ ὅταν
παρὰ τῶν ἀλλοτρίων.

Τὴν κριθὴν τοῦ ἵππου ἵπο-κόμος κλέπτων καὶ πωλῶν, τὸν
ἵππον ἔτριβε καὶ ἐκτένιζε ἐκάστης ἡμέρας. Ἐλεγε δὲ ὁ ἵππος· «Εἰ
θέλεις ἀληθῶς καλὸν εἶναί με, τὴν κριθὴν τὴν τρέφουσάν με μὴ
πῶλει».

VII

Χειμῶνος ὥρα δια-λάμποντος ἡλίου, οἱ μύρμηκες ἔφυγον
τοὺς σίτους ὑετῷ μυδαλέους. Τέτιξ δὲ λιμώττων ἤτει αὐτοὺς
τροφῆν. Οἱ δὲ μύρμηκες εἶπον αὐτῷ. «Διὰ τί τὸ θέρος οὐ συν-ἦγες
τροφῆν;» Ὁ δὲ εἶπεν· «Οὐκ ἐσχόλαζον, ὦ φίλοι, ἀλλ' ἤδον
μουσικῶς». Οἱ δὲ γελάσαντες εἶπον· «Ἄλλ' εἰ θέρους ὥραις ἡύλεις,
χειμῶνος ὄρχου».

Ἐπιγραμματικὸς μῦθος δηλοῖ ὅτι οὐ δεῖ τινα ἀ-μελεῖν ἐν παντὶ πράγματι, ἵνα μὴ
λυπηθῆ καὶ κινδυνεύσῃ.

VIII

Μύρμηξ διψήσας, κατ-ελθὼν εἰς πηγὴν, εἰλκύσθη ὑπὸ τοῦ
 ρεύματος, καὶ ἀπ-επνίγεται. Περιστερὰ δὲ τοῦτο θεασαμένη, κλῶνα
 δένδρου περι-ελοῦσα, εἰς τὴν πηγὴν ἔρριψεν, ἐφ' οὗ καθίσας ὁ
 μύρμηξ δι-εσώθη.

Ἰξευτὴς δὲ τις μετὰ τοῦτο τοὺς καλάμους συν-θείς, τὴν
 περιστερὰν συλ-λαβεῖν παρ-εσχευάζετο. Τοῦτο δ' ὁ μύρμηξ ἔωρα-
 κώς, τὸν τοῦ Ἰξευτοῦ πόδα ἔδακεν. Ὁ δὲ ἀλγήσας, τοὺς τε καλά-
 μους ἔρριψε, καὶ τὴν περιστερὰν αὐτίκα φυγεῖν ἐποίησεν.

Ὁ μῦθος δηλοῖ, ὅτι δεῖ τοῖς εὐ-εργέταις χάριν ἀπο-διδόναι.

IX

Γεοργός τις, μέλλων κατα-λύειν τὸν βίον καὶ βουλόμενος τοὺς
 αὐτοῦ παῖδας πείραν λαμβάνειν τῆς γεοργίας, προσ-καλεσάμενος
 αὐτούς, ἔλεγε· «Παῖδες ἔμοι, ἐγὼ μὲν τὸν βίον ἤδη καταλύσω· ἄ-περ
 δὲ μοί ἔστι ἐν τῇ ἀμπέλῳ μου κέρυρπται. Ἐκεῖ εὐρήσετε πάντα».

Οἱ δὲ νομίζοντες θησαυρὸν τινα ἐνταῦθα λαθάνειν, μετὰ τὸν
 θάνατον τοῦ πατρὸς αὐτῶν κατα-σκάπτουσι πᾶσαν τὴν τῆς ἀμπέ-
 λου γῆν. Καὶ θησαυρὸν, μὲν οὐχ εὕρισκον, ἡ δὲ ἀμπελος καλῶς
 σκαπτομένη, πολλα-πλασίονα τὸν καρπὸν ἔφερεν αὐτοῖς.

Ὁ μῦθος δηλοῖ, ὅτι ὁ κάματος θησαυρός ἐστι τοῖς ἀνθρώποις.

X

Βόες ἀμαξαν εἰλκον. Τοῦ δὲ ἄξιονος τρίζοντος, ἐπιστραφέντες
 ἔφασαν οὕτως πρὸς αὐτόν· «ὦ οὗτος, ἡμῶν τὸ ὄλον βάρος φερό-
 ντων, σὺ κέραχας;»

Οὕτω καὶ τῶν ἀνθρώπων ἔνιοι, μοχλοῦντων ἐτέρων, αὐτοὶ προσ-
 ποιῶνται κάμειν.

XI

Ποιμὴν μικρὸν λόκον εὐρῶν ἐθρέψατο, εἶτα σκύμνον γενόμενον
 ἐδίδαξεν ἀρπάζειν ἐκ τῶν σύνεγγυς ποιμνίων. Ὁ λόκος δὲ διδαχθεὶς
 ἔφη· «Ὅρα μὴ πως σὺ ἐθίσας με ἀρπάζειν πολλὰ τῶν σεαυτοῦ
 προβάτων ζητήσης.»

OARRAK:

ἡρπασεν: aor.-ἀρπάζω

ἐπι-δραμόντες: aor. bigarrana part ἐπι-τρέχω

εὐρήσουσιν: etork.-εὕρισκω

ἤτει: bukag αἰτέω

ἡδον: bukag ἄδω

εἰλκύσθη; aor. pas.-ἐλκῶ

σύν-θείς; aor. ek. part.-σύντιθημι

εὐρήσετε : etork.-εὕρισκω